

AURRE MATRIKULAZIOA

*2021-2022 ikasturterako hezkuntza
eskaintza*



Aurre-matrikulazioari buruzko informazioa

www.euskadi.eus

labur.eus/errekabarriblog

www.errekabarrigurasoak.eus

CEIP ERREKABARRI HLHI
Iliada ibilbidea 4A 01003 Vitoria-Gasteiz
945 18 70 31 / zuzendaria@errekabarri.net



**Eskola lagunak egiten diren tokia da. Ez da eraikinak, aretoak, koadroak, programak, ordutegiak, kontzeptuak.
Eskola batik bat, jendea da.**

Paulo Freire

Ikastetxe bat ez du soilik bere eraikinak egiten. Eraikina ikastetxe baten funtsezko zatia den arren, ez ditu bere zimenduak eratzen, ezta bere erraiak ere. Errekabarri 6 ikasturtez behin-behineko kokapen fisiko batean egon den ikastetxea da, bere auzotik kanpo kokatuta. Zailtasunak esperientziak baino ez dira, eta horiek hezkuntza komunitateak oztopoen aurrean bat egitea ekarri du, geure ikastetxe berriaren barruko zein kanpoko eraikuntzarekiko konpromisoa areagotuz.

Errekabarrin zerotik abiatzea probestu nahi dugu, egoera hori aukera gisatzat hartu, horrela hezkuntza komunitate osoaren esku-hartzearekin (irakasle taldea, gurasoak) XXI. mendeko eskola bat eskainiko duen hezkuntza eredu bat ezartzeko. Haurrak hezte prozesuan ardatz izango diren eskola bat nahi dugu, euren ikaste erritmoa errespetatuko duen eskola, pertsona izaten erakutsiko diena, elkarbizitzen, gaitasunak sustatuko dituen eta ikaskuntzak helburu bat duten prozesu baten partetzat dituen eskola. Ezaugarri horiek dituen ikastetxe batean ikastea errazagoa delako, baita haztea, ezagutzak barneratzea, lan egitea eta hezte ere. Azken baten zoriontsu izatea.

Orain da eskola sortzeko unea, berari nortasuna ematekoa. Eta zeregin hori preseski berau eratzen dugun guztioi dagokigu.


Talde hau osatzen dugunetako bakoitzak gainerakoei geure ilusioa kutsatu nahi diegu Errekabarri nortasun propioz hornitzeko. Geure ametsari bide emateko unea da, horrela egunen batean esan ahal izateko: ez zen erraza izan baina lortu genuen eta aldaketak zein erronka berriak geuregan hartzeko lanean dihardugu.

Salburua auzoan kokatutako eskola publikoa gara, familia gazteaz osaturik, irekia eta inguruarekin harremanak izateko prest.



Euskalduna eta eleanitza

Kalitatezko eskola



Parte hartzailea eta lidergo partekatua

Ikaslea ardatza





Hezkidetzailera

Ekitatiboa eta integratzailea



Hezkuntza komunitate bat osatzen duena

Inklusiboa eta anitza



Tolerantzia eta solidarioa

Natura zaintzen duena



Laikoa eta akonfesionala

Kultur anitzeko eskola



GURE METODOLOGIA

Gure metodologiaren erreferentea Antzuola Herri Eskola da eta Piageten eta Tonucciren ideia psikopedagogikoak aintzat hartzen ditu: hurrek ikasteko baliatzen duten egoera naturala jolasa da eta horren bidez jakintzaren eta heziketaren oinarriak osatzen dituzte.

Haurraren garapenean jolasak eta mugimenduak pentsamendurako progresioa egiten du eta zirkulazio libreak ibilbide natural horri eutsiz irakas-ikas prozesuetan eraginkor izatea du helburu.

Bestetik, proiektuen bidezko metodologiak ikuspegi globalizatu batean lan egitea ahalbidetzen digu, umeen interesa eta motibazioa oinarri harturik.



Horretarako, era honetan antolatzen gara:

- HH 2 urte
- HH 3 urte – HH 4 urte
- HH5 urte – LH 2. maila
- LH 3. maila – LH 6. maila

HEZKUNTZA ESKAINTZA ETA PLAZA LIBREAK

Haur Hezkuntza: 2-6 urte


Lehen Hezkuntza: 6-12 urte

HAUR HEZKUNTZAN

- 2 urte, 3 gela: 69 plaza libre (69tik 24 neba-arrebak)
- 3 urte, 3 gela: 0 plaza libre (69tik)
- 4 urte, 3 gela: 0 plaza libre (69tik)
- 5 urte, 3 gela: 0 plaza libre (69tik)

LEHEN HEZKUNTZAN

- 1. maila, 3 gela: 75 ikasle (6 plaza libre)
- 2. maila, 3 gela: 75 ikasle
- 3. maila, 3 gela: 75 ikasle
- 4. maila, 3 gela: 75 ikasle
- 5. maila, 3 gela: 75 ikasle
- 6. maila, 2 gela: 50 ikasle



ORDUTEGIA

	Sarrera	Irteera	Sarrera	Irteera
HH 2	9:00-9:30	12:20	-	16:20
HH 3, 4, 5	9:00-9:30	12:30	14:30	16:25
LH	9:00	12:30	14:30	16:30



JANTOKIA



Jantokiko ordutegia 12:30-14:30 da.

Umeek bi txandetan bazkaltzen dute.

Jantokiko prezioa ohiko bazkalkideentzat
4,60€-koa da.

IGE-K KUDEATUTAKO ZERBITZUAK

Zaintza zerbitzua



8:00-9:00

Kontuan izan haur hezkuntzako umeak ezin direla 8 ordu jarraian baino gehiago eskolan egon.

Eskolaz kanpoko ekintzak



Arratsaldeetan 16:30-17:30

Kirolak, adierazpen artistikoa, dantzak, topalagun, topaketak...

Bi zerbitzu hauen inguruan zalantzak badituzu, zuzenean mezu bat idatzi ondorengo helbide elektronikora:

ampaerrekabarrieguzki@gmail.com



ESKOLA ETA HIZKUNTZAK

Gurasoekin elkarlanean

Zure seme-alaba Errekabarrin matrikulatzeko asmoa baduzu honakoak kontuan izan behar dituzu:

- Ikastetxe bat gara eta beraz:
 - Gure ikasleek, gutxienez, bi hizkuntza ofizialak ondo ikastea nahi dugu: euskara eta gaztelania.
 - Ingelesean ere maila egoki bat lortzen lagunduko diegu.
- **D ereduko ikastetxea gara**, eta horrek esan nahi du:
 - Euskalduntze prozesua bultzatzen dugula.
 - Euskararen erabilera gure helburuetako bat dela: gure ikasleek euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabiltzea nahi dugu.
 - Hori bilatzen dugula eta norabide horretan lan egiten dugula.
- Argi daukagu, gainera, bai hizkuntzak ikasteko baita euskararen erabilera lantzeko eta indartzeko **zuen laguntza, hau da gurasoen laguntza, behar dugula**. Eraginik handiena zuek duzue.

Horregatik, Errekabarriko guraso izaten zareten momentutik, hainbat aholku eta proposamen egingo dizkizuegu norabide horretan. Parte hartzeko prest?

OOG-k ERABAKITAKO PUNTUA

GEHIENEZ: PUNTU 1

CEIP ERREKABARRI HLHI Ordezkaritzako Organo Gorenak erabaki du eskolek eman dezaketen puntu osagarriak EZ ematea.



AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskabidearekin batera, nahitaez, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Ikaslearen familia-liburuko fotokopia, edo jaiotza-agiria.
- Eskaera egiten duen pertsonari dagokion familia-liburuko fotokopia: aita, ama; edo ikaslearen legezko tutorea dela ziurtatzen duen agiria.
- Eskabidea egiten duen lagunaren NANaren edo AIZren fotokopia: aitarena edo amarena, edo legezko tutorearena.
- Familiaren bizilekuaren ziurtagiria (ikaslearena, aitarena, amarena, edo tutorarena), gehienez hiru hilabeteko antzinatasunekoa edo Udalak egindakoa.
- EAEtik kanpo eskolatutako ikasleen kasuan, egindako ikasketen ziurtagiria, argi eta garbi adieraziz zer maila egiten ari diren une horretan.
- Ikaslea etxean hartu bada, egoer ahori egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala.
- Hezkuntza Sailak ezarritako berezko protokoloa bete izanaren agiria, familia banandua edo dibortziatua bada.

Halaber, baremoko edozein apartaturen puntuazio eskatzen denean, behar diren egiaztagiria aurkeztu beharko dira.

IZENA EMATEKO EGUTEGIA

- Eskabidea eta egiaztagiria aurkeztea:
 - on-line: **2021ko urtarrilaren 18tik 29ra, 00:00ak arte.**
 - aukeratutako lehenengo ikastetxean: **2021ko urtarrilaren 18tik 29ra.**
- Eskatzaileen zerrenda argitaratzea: **otsailaren 16a.**
- Behin-behineko zerrendak argitaratzea: **martxoaren 9a.**
- Behin-behineko zerrendei erreklamazioak egitea: **martxoaren 16ra arte.**
- Eskabidean atzera egitea: **martxoaren 16ra arte.**
- Behin betiko zerrendak argitaratzea: **martxoaren 23a.**
- Lurralde-ordezkariek esleitutako plazen zerrendak argitaratzea:
martxoaren 26a
- Behin betiko zerrendei gora jotzeko errekurtsioak jartzea: **apirilaren 23a arte.**
- Itzarote- zerrendaren iraunaldia: **irailaren 17ra arte.**

Aurre matrikulazioa eskolan egiteko



1. Inprimakia jaso eta beteta entregatu.
2. Matrikula egingo dugu eta eginda dagoenean sinatzera etortzeko deituko dizuegu.
3. Sinatzera etorri.

Egutegia eta ordutegia:

- Urtarrialaren 18tk 28ra (biak barne)
- Ordutegia:
 - Astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan
9:00-12:15 eta 14:30-17:00
 - Asteazkenetan 9:00-14:30